

BITERI KULTUR ETXEA

**COVID-19
PROTOKOLOA
2021**



**Hernaniko
Udala**

COVID-19AREN ONDORIOZKO BABES- ETA SEGURTASUN-NEURRIAK BITERI KULTUR ETXEAN

Biteri kultur etxeko zerbitzuak eskaintzeko orduan, Covid-19aren ondorioz agintariek emandako jarraibide eta gomendioetara egokitzeko prestatu dugu kultur etxea. Areto nagusiko emanaldietan zein gainerako gelak erabiltzeko orduan, osasunari eta segurtasunari lotutako neurriak hartu dira.

Kultur etxeko baliabideen erabiltzaileek kultur etxeak zehaztutako neurriak bete beharko dituzte, bai eta bertako langileen jarribideak bete ere.

Guztiok partekatzen dugun espazioa da; guztion artean zaindu beharrekoa. Beraz, guztion ardura da zentzuz eta arduraz jokatzeara.

1.- Edukiera.

Oro har, % 50eko edukiera izango du kultur etxeak, gela bakoitzerako kopurua zehaztuta dagoelarik. Kopuru hori ezingo da gainditu.

2.- Maskara.

6 urtetik gorako pertsona guztiek derrigorrez maskara jantzi beharko dute kultur etxera sartu eta irtetean, zein bertako gelak edo zerbitzuak erabiltzerakoan.

3.- Eskuak garbitzea.

Kultur etxera sartu eta irtetean, gel hidroalkoholikoarekin garbitu behar dira eskuak. Gela eta desinfektatzailea eskuragarri egongo dira sarreran eta areto guztietan, baita komunetan ere.

4.- Temperatura.

Nahi duen orok temperatura hartzea eska dezake sarreran.

5.- Mugitzea.

Kultur etxean barrena ibiltzeko seinaleak jarraitu behar dira, modu ordenatuan ibiltzeko eta pasiloetan pilaketarik ez gertatzeko.

6.- Ilarak.

Sarreran ilara sortuko balitz, pertsonen arteko segurtasun-distantzia utzi beharko da. Langileak arduratuko dira egoera kudeatzeaz; beraz, kasu egin haien jarraibideei.

7.- Sarrerak / gonbidapenak.

Emanaldietarako sarrerak zein gonbidapenak aldeztu aurretik hartu beharko dira, ahal dela Internet bidez, eta sarrera ordaindu behar den kasuetan, txartelaren bidez ordaintzea onartuko da soilik.

8.- Ikuskizunak.

Covid-19aren ondorioz edo egoerak hala eskatuta, gerta liteke emanaldiren bat bertan behera geratzea edo ordutegia aldatu behar izatea. Kasu horietan, aurrez ordaindutako sarreren dirua itzultzeko aukera izango da, betiere ordaintzean erabilitako txartelaren bidez.

9.- Garbiketa.

Kultur etxea garbitzeko orduan, arreta berezia jartzen zaie heldulekuei, eserlekuei eta, oro har, erabiltzaileek ukitu ditzaketen leku edo tresnei. Gela guztietan eskuak garbitzeko gel hidroalkoholikoa eta gainazalak desinfektatzeko produktuak daude eskuragarri. Komunetan ere desinfektatzeko produktuak daude.

ARETO NAGUSIA

- 1.- Sartu eta irtetetan, eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitu behar dira.
- 2.- Sarrera eta irteeretan zein emanaldietan zehar, maskara jarrita izan behar dute 6 urtetik gorako pertsona guztiek.
- 3.- Aretoan debekatuta dago jatea eta edatea.
- 4.- Edukiera murriztuta dagoela eta, 110 besaulki daude erabilgarri, eta blokeatutako eserlekuak ezin dira erabili.
- 5.- Aretora sartu eta irteteko alboetako bi ateak erabiliko dira.
- 6.- Sartu eta irteteen ilarak sortuz gero, elkarren arteko distantzia errespetatu behar da.
- 7.- Antzokia egunero garbitu eta desinfektatuko da. Zinema saioak daudenean, emanaldien artean ere besaulkiak desinfektatuko dira.
- 8.- Emanaldien aurretik eta ondoren, aireztatutako da aretoa, ateak zabalduz.

LIBURUTEGIA

- 1.- Liburutegiaren edukiera, orotara, 62 pertsonakoa da gehienez, espazio desberdinetan banatuta. Espazio bakoitzak bere edukiera propioa du eta kopuru hori errespetatu behar da.
- 2.- Liburutegian sartzeko, aldez aurretik gel hidroalkoholikoarekin garbitu behar dira eskuak.
- 3.- Mailegatutako liburuak kultur etxeko kanpoaldean kokatutako postontzian utzi behar dira. Behin liburuak bertan utzita, astebetez biltegian gordetzen dira desinfektatu daitezten.
- 4.- Liburutegian barrena ibiltzeko seinaleak jarrita daude lurrean, elkarren arteko topaketak edo pilaketak saihesteko. Jarraitu seinale horiei, arren.
- 5.- Liburutegian ezin da ez jan ezta edan ere.

ERAKUSKETEA ARETOA

- 1.- Liburutegiaren edukiera % 50era murriztu da, hortaz, gehienez 25 lagun egon daitezke aldi berean.
- 2.- Sartzerakoan eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitu behar dira eta maskara jantzita eraman.
- 3.- Erakusketaren bisita egin nahi izanez gero, norabide bakarrean mugitzea gomendatzen da, bisitariak elkar topo egin ez dezaten.
- 4.- Bisita gidatuak antolatuz gero, gehienez 10 laguneko taldeak baimenduko dira.
- 5.- Ez ukitu erakusgai dauden artelanak.
- 6.- Areto barruan ezin da ez jan ezta edan ere.

ARETOEN ERRESERBA

- 1.- Bilera gelak, areto nagusia zein kultur etxeko beste gelaren bat erreserbatu nahi duen taldeak aldeztu aurretik eskaera-orria behar bezala bete beharko du.
- 2.- Egoeraren gorabeherak direla medio, gerta liteke azken orduan eskaeraren bat bertan behera uztea, kultur etxearen antolaketak horrela eskatzen badu.
- 3.- Aretoak erreserbatzeko orduan, bete beharreko baldintzen orria jasoko dute eskatzaileek. Orri horretan jasotzen diren arauak derrigorrez bete beharko dira, hala nola, gehienezko edukiera, segurtasun-tarteak edo garbiketa.
- 4.- Arau horiek betetzearen ardura izango dute talde eskatzaileek.
- 5.- Gela eskatu duen elkarte edo taldeak aretoa garbitu eta desinfektatu beharko du egonaldia amaitzean, bereziki, mahaia, aulkiak eta heldulekuak. Horretarako, garbikariak eskuragarri izango ditu.

KULTUR IKASTAROK

1.- Ikastaro guztietako ikasle kopurua murriztu egin da, eta elkarren artean 1,5 metroko distantzia utzita egin dira edukiera kalkulak. Edukiera horiek errespetatu egin behar dira.

2.- Ikastaroetarako sarrerak eta irteerak mailakatuta egingo dira, pilaketarik gerta ez dadin.

Komeni da klasea bost edo hamar minutu lehenago amaitzea irteera mailakatua egin ahal izateko.

3.- Geletara sartu eta irteteko zein gela barruan, maskara erabili beharko da.

4.- Gorputz espresioa lantzen duten ikastaroen kasuan, bost laguneko taldeetan bilduko dira ikasleak. Taldea beti kide berdinek osatuko dute eta distantzia mantenduko dute gainerakoekin.

4.- Elkar ukitzea saihestuko da, segurtasun-tartea mantenduz.

5.- Erabiltzaile bakoitza beti leku berean kokatzea lehenetsiko da, bai mahaia erabiltzen den kasuetan, bai dantzarako kokatzeko orduan ere.

6.- Aldagelak. Aldagelak ezin dira erabili, ez arropaz aldatzeko ez dutxatzeko.

Soilik berokiak edo poltsak utzi ahal izango dira, eta txandaka sartuko da horiek uzteko. Etxetik ahalik eta gauza gutxienekin etortzea gomendatzen da.

7.-**Materiala.** Yoga eta Tai Chi ikastaroetan, erabiltzaile bakoitzak bere esterilla etxetik ekarri beharko du, eta klasea amaitzerakoan eraman. Ezingo da bestelako materialik erabili. Klasearen ondoren, heldulekuak edo ukitzen diren bestelako lekuak desinfektatuko dira.

Arte plastikoetan, norberak bere materiala erabiliko du, eta partekatu behar bada, aldez aurretik ondo garbituko da. Klasea amaitzean, material guztia desinfektatu egingo da.

8.- **Pasabideak.** Pasiloetan, komunetan eta partekatzen diren espazioetan ahalik eta denbora gutxien egon behar da, taldetxoak edo hizketaldiak saihestuz.

9.- **Aireztapena.** Irakasleak klaseak aireztatzeaz arduratuko dira, klasearen aurretik zein ondoren leihoak zabalduz. Ahal bada, klaseak irauten duen bitartean ere leihoak irekiko dira.

10.- Gela guztietan gel hidroalkoholikoa eta gainazalak desinfektatzeko produktuak izango dira eskuragarri, bai eta paperezko zapiak ere.

11.- Arau horiek betetzeko ardura izango dute irakasleek, eta beharrezkoa bada, klaseak egokitu beharko dituzte.